



xapo

2002ko martxoa - 1. alea



Goizuetako
aldizkaria

Hi gazte!!

Jeikitzeke ordua da,
'XAPO' aldizkaria kalean da!!



ale honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako gazteak eta
Goizuetako Udalaren
euskara zerbitzua

• **Diseinua eta
maketazioa:**

Allende Arnaiz

• **Argazkiak:**

Esteban Arozena, euskara
zerbitzua, Goizuetako
gaztetxea, TTipi-TTapa,
Joxe Lacalle

• **Laguntzaileak:**

Goizueta, Arano,
Leitza eta Aresoko
Euskara Zerbitzua

Nafarroako Gobernua:

• Hezkuntza eta Kultura
Departamentua
• Unibertsitateetarako eta
Hizkuntza Politikarako
Zuzendaritza Nagusia



aukibidea

- **4**..... Ba al dakizu goizuetako euskaraz idazten?
- **5-7**..... Gaztetxearen 10. urteurrena
- **8-9**..... «Kolokan» musika taldea
- **10-11**..... «Xapó» musika taldea
- **12**..... Goizueta gaixoa nora zoaz?
- **13**..... Goizueta ezagutuz
- **14-15**..... Adimenak dantzan
- **16**..... Bertso eskola
- **17**..... Iñoteak
- **18**..... Ezetz asmatu
- **19-21**..... Goizuetako toki izenak
- **22-23**..... Test-a
- **24**..... Aralar musika eskola
- **25**..... Euskararen inguruan
- **26**..... Txistekak
- **27**..... Letra zopa, horoskopoa
- **28**..... Zure txanda



Xapo aldizkaria.

Zer da

Xapo» aldizkariaren lehendabiziko alea duzu eskuetan, irakurle. Azkeneko hilabeteotan egindako ahaleginaren emaitza, ondorioa. Goizuetarren gustukoa izanen ote da? Ahalegina egitea merezi ote du? Zerorrek duzu erantzuna. Gu, behintzat, goizuetar guztien gustukoa izanen den zerbait sortzen saiatu gara, herriari nolabaiteko ekarpena egingen. Goizuetan egina, goizuetarren tzat egina, Goizuetako hizkuntzan, euskaraz alegia, egina. Baina aldizkaria irakurtzen hasi baino lehen, aurkezpen modukoa labur-labur egin nahi dugu, agian burura etorri zaizkizun zenbait galderari erantzunez.

Zergatik?

Goizuetak, etorkizunean bizirik jarraituko badu, era guztietako ekimenak edo inizatibak behar dituelako. Hau horietako bat besterik ez da, xume-xumea, baina herria animatzen lagundu dezakeena.

Zertarako?

Goizuetarrek beren herria hobeki ezagutzeko. Herriarekiko lotura eta

atxikimendua indartzen laguntzeko. Herritarrei, eta batez ere gazteei, adierazpide bat emateko. Eta, zergatik ez? irakurtzen dugun bitartean, atseginaldi bat izateko, entretenigarri gisa.

Nolakoa?

Arina, baina edukiz ongi hornitua. Umoretsua batzuetan, serioagoa bestetan. Letraduna, baina irudi ugariz lagundua. Eta, guretzat oso garrantzitsua, euskaraz, bertako hizkuntzan egina. Izan ere, Goizuetan euskaraz hitz egitea gauzarik arruntena, naturalena eta azalpenik behar ez duena izan arren, askotan ez dugu euskaraz irakurtzeko ohitura edo joera handirik izaten, eta uste dugu hori bultzatzea ere beharrezkoa dela.

Nork?

Aldizkaria, lehendabiziko alea behintzat, Goizuetako zenbait gaztek eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzuak elkarlanean sortu eta egin dute. Hala ere, taldea guztiz irekia da eta interesa duen edonork parte har dezake. Pozik hartuko ditugu ekarpenak, ideiak, proposamenak...

Horixe duzue, beraz, «Xapo» aldizkaria. Lan duina egin dugulakoan atera dugu kalera, nahiz eta, zalantzarik gabe, hobeki ere egin zitekeen. Nolanahi ere, kontrakorik agintzen ez badiguzue behintzat, aurrerago ale gehiago argitaratzen saiatuko gara, Goizuetako herriaren eta goizuetarren inguruko kontuak bilduz eta denon eskura jarritz. Sarrera hau oso osorik irakurtzea lortu baduzu, animo! atzetik heldu dena hau baino arinagoa, atseginagoa eta gozagarriagoa baita. Besterik gabe, hurrengora arte eta izan ongi.



Goizuetako euskaraz idazten?

Tira, azalpenak
alde batera utzita,
hementxe duzue
ariketa:

Euskara batuan idatzitako testu hori, nola idatziko zenuke Goizuetako euskaraz?



Gaztetxearen

10. urteurrena

A benduan gaztetxearen aldeko mugimendua sortu zenetik hamar urte bete dira eta hori ospatzeko oraingo gazteek zenbait ekin-tza antolatu dituzte. Baina ikus dezagun nola hasi zen mugimendua eta horretarako, ixtorio hauetan sartua egondako bat hautatu behar zenez, Axier Lujanbiori galdetzea otu zaigu. Hona hemen zer erantzun dien gure galderei.

Lehena (hasiera)

- **Gaztetxearen sorreraren inguru-ko data zehatzik ba al dago (inaugurazioa, egun bereziren bat)?**

Inauguraziorik ez baina, egun bat patzekotan, lehenbiziko kontzertua egin zenekoa har daiteke. Pikutara, Kanka ta Keharra taldeek jo zuten 1991ko abenduaren 7an, noski. Kuestioa zen zerbait egin behar zela eta talde bat ezagutzen genuenez eta honek besteak, hasieran egin zena kontzertua izan zela.

- **Nola montatu zenuten hori dena?**

Ahal bezala. Eszenario gisa mahai zahar batzuk iltzekin josita eta tabernako mostradoretako tabla bat lau

kaballetekin, «plan cutre». Zerbeza berriz, latatakooa, merkeena zelako. Jendea etorri zen, bai kanpokoak baina, batez ere, herrikoa, gazteek zer egin zuten ikusteko kuriositatea izango zutelako akaso.

- **Zenbat pertsona zineten mugimendu hau sortzerakoan?**

Gaur egun 30 urte inguru dituzten gazteak ziren: Aitor Mutuberria, Axier Olaizola, Igor, Pello, Bakallo, Xarra, Txoferran bixkik, Moreno... 20 bat denera, orduko gazte guzia. Horiek ziren hasi zirenak, zaharrenak, liderrak, diru kontutaz eta arduratzen zirenak. Gu berriz atzetikan, 14 urtekin, deus serioa egiten ez genuela.

- **Zein izan zen arrazoia?**

Orain errazago ateratzen zara kanpora, Hernanira edo. Lehen berriz ez, eta herrian egotekotan, nola-hala, zezoz egin beharra zegoen. Lehen herrian ez baldin bazen, ez zen inon, ez zen deuse.

- **Hasiera zaila izanzen zenuten; dirurik eta lekurik gabe... Nolakoa izan zen hasiera hura?**

Beno, lehenbizi dantzetako lokalean egoten ginen, baina bi urtetara

edo, guretzako lokal bat eskatu eta udaletxe azpiko hura eman ziguten. «Hecho polvo» zegoen eta pintatu, zuloak masarekin tapatu... eta horrelakoak egin genituen. Hasieran bilere-tarako eman ziguten, baina gero igandeetan, asteburuetan egoten ginen, eta azkenean, gazteak egoteko leku bihurtu zen.

Eboluzioa

- **Kontzertuak eta gainerako ekin-tzak egiten nola hasi zineten?**

Konfidantzazko jendearekin tratatzen genuenez, kontzertuetan dirurik ateratzen ez bazen, posible zen beranduago plazoka ordaintzea. Gainera, aipatutako lehenengo kontzertua nahikoa ongi atera zitzaigun eta dirua lortu genuen. Frontoiko kontzertu batean dirua atera zen bakarra, aurrenekoa. Huajaloteenean ere antzeko zerbait pasatu zen, Euskara Zerbitzuak taldea pagatzen zuenez, irabazia garbia zelako. Gainerakoetan, izugarrizko galerak.

Boletoeikin ere dirua lortu genuen. S.A. ren kontzerturako boletoak saldu ziren, kontzerturik ez zen egin eta sor-



elkarrizketa

Aurretik eginiko hainbeste lanen ondoren, oraingo gazteek gaztetxe dotorea dugu, edozein gauzetarako aproposa, baita lasai-lasai egoteko ere

La Polla taldearen kontzertuko momentu bat, urriaren 26an gaztetxean izan zena (ez zen Evaristo bakarra izan ikuskizuna eman zuena).



teorik ere ez. A! Eta Bar Maritxuko sortea ere izugarritzko negozioa zen. Gainera, bagenekien zeini tokatzen zitzaien, gehienetan inguruko norbaiti, zuri ez bazen koadrilakoari...

• Nolako antolakuntza zenuten?

Hasieran denen artean egiten genituen gauzak. Baina azkenean, 20-30 lagunetatik hiruek egiten dute lan guzia. Ongi edo gaizki, moskeo gehio gutxi, denak ongi pasatzen genuen, eta tira. Gero ordea, seieko taldeak egin eta bakoitzak gutxienezko bi ekitaldi antolatuz, hilabete batean 10.000 duro gastatzeko aukera zuen. Muga hau pasatuz gero, negozioren bat egin beharra zegoen hori erreku-peratzeko. Hasieran arrunt ongi, bartzuetan asteburuero egiten zen zerbait. Baina azkenean berriro lehengoraitzuli ginen, gero eta ekintza gutxiago antolatuz, deus ere ez egitera ailegatu zelako.

• Zein da burutan daukazun ekin-tzarik gogoangarriena?

Def Con Dos-en kontzertua. Izugarritzko lana zuen, bai festaurren, momentuan eta ondoren, eta 3.000.000tik gorako presupuestoa. Udaletxea eta Egunkaria zeozer gaizki ateratzen bazen laguntzeko presteuden. Hemendik aurrera ordea, gehiago ez ginela arriskatu esan genuen eta hurrengo urtean Gestorak antolatu zuen azkena. Fama asko zuten, inguruko udako kontzertu potentea zen. Gero Arantzakoak hasi ziren, guri deitu ziguten laguntzeko, eta azkenean, guk baino hobeto ikasi dute!

• Eta zuek ze fama zenuten?

Porreron fama, porroa eta drogaren fama besterik ez zegoen gaztetxean. Eta okerreza zen ez zela hala. Azkenean, «Ttipi-ttapa»n zerbait azaldu zene gure kontra. Guk beste karta bat bidali genuen, kanpotikan jakin gabe hitz egiten ari beharrean, atea nahi zuenarentzat irekia zegoela esanez. Hor jendea ixildu zen. Baina ez zen inor azaldu, ez bazen geran gurasok gure bila! (kar-kar!)

• Nola izan zen gaztetxe «berri»rako aldaketa?

OSPATZEKO EKINTZAK

Axierrek esan duenez, abenduan egin zuten kontzertua har daiteke gaztetxearen mugimendua-
ren hasieratzat. Guk ordea, Gazte Asanbladakook, abendura arte itxaron gabe, urri eta azarora-
ko zenbait kontzertu eta ekintza antolatu genituen eta ez nolanahikoak:

Urriaren 26an La Pollak jo zuen gaztetxean! Toki txikia izan arren, ostirala zenez, neurri-neurriko
jende kopurua bildu zen eta izugarrizko giroa sortu. Batez ere, herriko jendea genuen bertan,
kanpoan propaganda gehiegirik ez baikeuen egin. Eta herritarren artean, adin ezberdinekoen
nahaste-borrasteak giro berezia sortu zuen. Izan ere, Evariston ikuskizunaz denek gozatu nahi zu-
ten, inoiz ez baita egon talde hau Goizuetan ikusteko aukerarik. Aurretik, heldu zela zabaldu izan
bazen ere, urriaren 26an izan da egitez kontzertua.

Azaroaren 23 eta 24koa ez zen gutxiagokoa izan. Hasteko, «Nekaezinak» txarangarekin izan
genuen beroketa, ostiralean. Instrumentu ezberdinak etengabe aldatuz, era guztietako kantak
joz (jotak, pasodobleak...), oso emanaldi atsegina eman zuten. Txaranga baino, orkestra bat zi-
rudien eta!



Orain dela 4-5 urte izandu zen. Udaletxeko lokaletik joan beharra izan genuen eta bi aukera eman ziz-
kiguten: zentroa, nahiz eta arrunt polita izan, obran izugarrizko gas-
tua zuena, eta bestela, labaderokoa. Zentrokoa aukeratu genuen eta
lanean hasi ginen. Dena txikitua zegoen, trastez betea, bigarren
pisan zuloa goitik behera, ezin zen sartu ere egin. Lurra, bigak aldatu,
tarima zaharra kendu eta berriak sartu, mostradorea bota berria jar-
tzeko, sukaldeko hormigoia bota, argia... ia dena guk egina da, eskaio-
la patzea ezik. Tonto-tonto, 1.000.000 inguru. Izan ere, gauza
guztietan hoberexkoena sartzen saia-
tu ginen, lurra gaztainarena, adibi-
dez. Behin egin behar duzu «ruina»,
ba behin hasiz gero, itxuraz egin!

Oraina

- **Aurretik hainbeste lan egin ondo-
ren, oraingo gazteak alperturik
dabiltzala esan ohi da. Zeozer
esango al zenieke?**

Dena eduki duzue egina, eta ez zarete gehiago egiten molestatu. Normalean, dau-
kazuna ez duzu apreziatzen, ez daukazuna baizik. Guk
egin beharra genuen, deus ere ez genuelako eta norbe-
raren izerdiarekin aterata-
koa derrigor zaintzen da. Motibazioa bagenuen, dirua
eginez gero lokala izanen ge-
nuen... Zuek zer lortu deza-
kezue lana eginda?

Geroa?

Aurretik eginiko hainbeste lanen on-
doren, oraingo gazteek gaztetxe do-
torea dugu, edozein gauzetarako
aproposa, baita lasai-lasai egoteko
ere. Baina ez horretarako bakar-
ra, mila eginkizun baitago egiteke. Eta
gaztetxeak ematen dituen aukerekin,
zergatik ez aprobetxatu? Apa gaztek,
etorkizuna gure esku dola!! Guk ez
badu deuse itten zeinek inen do?



Eskoletako jantokia bete
zuen ikuskizun honen ondoren,
Umore-Ona elkartearen afaria
izan zen. Jende z gainezka zego-
en hau ere, txartel guztiak saldu
eta gero. Horrelako gauzetara-
ko bai animatu goizutarrak! Eta
jarraian etorri zen azitia? Hura
bai magoa. Eriz jauna, mundu
guztia barrez lehertze jarri
zuen, bere truko (edo magia?)
harrigarriekin.

Aspertzeko betarik eman ez
zuen saioa bukatzean, denak
arrunt gustura egonik ere, etxera joan behar, hurrengo gauerako indarrak gordetzeko. Izan ere,
azaroaren 24rako, kontzertu dotorea zegoen antolatua: 4 Itzal, Asgarth eta Betagarri taldeak
etorri zitzaizkigun Goizuetara! A ze mugimendu eta erritmoa paratu zutena, azken laukoak, batez
ere! Halako hotzarekin uste baino jende gehiago animatu zen, gainera. Goizuetako udako kon-
zertuak inguruko potenteenak zirela esan dugu Axierri elkarrizketa egiterakoan. Udazkenekoa
ere ez da makala izan ordea, ez?

Orain artekoa arrunt ongi egon dela ikusi dugu. Beraz, animatu eta egin ditzagun horrelako
ekintza gehiago herrian bertan! Dagoeneko proiektu bat edo beste bidean ez ote den... Edozein
proposamen onartzeko ere prest gaude. Ea zer ateratzen zaigun!

Bestalde, azaroak 23 eta 24rako ekintzetarako, udalak eta zenbait pertsonak, bereziki, es-
kaini diguten laguntza eskertu nahi genuke, hori gabe gauza asko ez baitziren egingo. Milesker!



«Kolokan»

...baina erori gabe!!



Kolokan Goizutako musika talde berri bat da lau motiko gazteek osatzen dutena. Orain dela gutxi hasi ziren jotzen baina dagoeneko arrunt ezagunak dira herriko gazteen artean, izan ere denok talde honen abestiak kantatzen aritzen baikara momenturo. Hilabete gutxi pasa dira beraien lehendabiziko maketa atera zutenetik, eta diska hau osatzen duten kanta guztiak beraiek asmatutakoak dira, bai letrak baita doinuak ere.

Esan dudan bezala, taldekide guz-

tiak hemengoak dira. Dani betidanik musikazale eta musikajole amorratua izan da. Instrumentu mordo bat jotzen ditu. Hasieran berak bakarrik osatzen zuen taldea baina azkenean ezin zuen dena berak eraman. Hiru instrumentu baino gehiago ezin zituen batera jo eta orduan beste hiru hauek laguntzeko dauzka orain. Hasieran Xebe Belakokoa eta biak hasi ziren, Xebek filarmonika eta gitarra tartekatuz. Musika «Celta» jotzen zuten gehienbat. Baina Untxari (Iker Apezetxea) eta Pollo (Fernando Goia)

taldean nola sartu ziren da bitxia, arrunt modu zelebrea izan baitzen.

Untxari lanean ari zela andamiotik erori eta hankan min hartu zuen. Berak esan zuenez, nahita gertatu omen zitzaion hori ez baitzuen gustoko orduko lana, ez omen zitzaion laneko martxa gustatzen. Musikatik dirua errazago aterako zuela pentsatuz, «Kolokanen» hasi zen bajua jotzen.

Polloren kasua ere arrunt bitxia da. Dani, Xebe eta Untxarik baterijole bat behar zuten taldea osatzeko eta Casting-a egin zuten. Pollo aurkeztu

«Dagoeneko arrunt ezagunak dira herriko gazteen artean, izan ere denok talde honen abestiak kantatzen aritzen baikara momenturo»

Kolokanen debuta Goizutako gaztetxan izan zen baina «en plan kuadrila» jo zuten Motzan barren afari ederra egin eta gero

zen froga hauetara, eta nahiz eta hain ongi ez zuen jotzen, bere abiadura izugarria omen zen, orain arteko markak hautsiz (16'5 kolpe segunduko). Hori pasada!!!

Entseguak... timbrea joaz

Taldeak nola funtzionatzen duen galdetu nien eta Pollok azkar erantzun zuen: «Iñork ez to fundamentuik. Beti ni aitzen naiz itxez-itxe timbrea joka ta galdezka aber noiz hostia ensaiatu bar dun».

Normalean kontzertu batean jo eta gero gehiegi erlajatzen omen dira. Hurrengo kontzerturako abisatzen zaienean hasten omen dira berriz ere larritzen. Hemen-dik aurrera serio hasiko omen dira. Ja, ja, ja!!!

Kolokanen debuta Goizutako gaztetxan izan zen baina «en plan kuadrila» jo zuten Motzan barren afari ederra egin eta gero. Geroztik nazkatu arte alaitu dute gure txoko hau beraien musikarekin. Loiolako fiestatan ere beraien kontzertua aditzeko aukera izan genuen, plaza guztia herritarrez bete zelarik. Kanpotarrek haserre bizian alde egin behar izan zuten kontzertuko lekutik beraientzat adina lekurik ez zegoelako. Hora jende pila!! Haik bultzadak!!!

'El Fari', 'Kaxiano' eta 'Sex Pistols' eredu??

Galdera pertsonalagoak egitera ere ausartu nintzen, gustokoen dituzten musika taldeak edo kantak zein diren esate baterako. Egia esan denetariko erantzunak egon dira, gu denak harri-



tuko gaituztenak, baita kontraesan ugari ere. Danik «Spice Girls» eta «El Fari» aipatu ditu, baina hala ere «Pretty woman» pelikularen abestia omen du gustokoen. Pollori berriz «S.A.», «Reincidentes» eta «Kaxiano» paretari begira, baita Enrique Iglesiasen «cachè»a ere. Xebek esan duenez,

«Sex Pistol» oso gustoko du, baina «Laura Pausini»ren azken diskak arazo guztiak ahaztuarazten omen dizkio. Azkenik Untxariri galdetu diot bere musika talde faboritoen berri eta oso zerrenda luzea aipatu du: «Sonia eta Silikona»ren fisikoa, «S.A.»ko abeslariaren ahotsa, Angus Young («AC DC»ko gitarjolea), «Molotoff» taldeko bajista, eta nola ez, Kolokaneko bateria.

Helburua: autografoak sinatzea!!

Lehen aipatu dut Goizutan eta Loiolan jo zutela, eta gainerako lekuez ez dira oroitzen. Gainera hainbat tokitan ezetz esan omen dute agenda beteta dutelako. Orain enpresa haundi bat beraien atzetik omen darabilte lata batean kontrato eder bat eskainiz, baina Kolokanekoak ez daude prest edozeinen eskuetan erortzeko.

Talde honekin lortu nahi dutena ongi pasatzea eta herriko jendeak jarraitzea da, baina Pollo ez da horrekin asetzen, bere helburua pertsona famatua bihurtu eta autografo asko sinatzea omen baita gauza guztien gainetik.

Bueno, jadanik taldekideek eta nik neuronak agortuta dauzkagu eta ez zaigu deus gehiago burura etortzen. Ahhh!!! Pollok esan du bere fan guztiei abisatzeko hurrengo kontzertuaren hasieratik nikirik gabe joko duela eta lasai egoteko. Uufff!!! A ze jende pila!!!

Ikusten denez hauei ezin zaie elkarriketa serio bat egin eta honetan utziko dugu bale?



'Xapó' taldea

plazarik plaza

Gure aldizkari honetarako, Xapó taldeari elkarrizketa egiteko aukera izan dugu, eta gurekin partaideetako bi izan ditugu, Dani eta Eneritz.

• Noiz sortu zen taldea?

Dani: Ainara eta ni hasi ginen, hamabi bat urte genitula, ta lehendabizi, gu biak ibiltzen ginen, despedidatan,... Geroxio, Eba, familiko otordutan hasi zen gurekin, eta gero ni modernizatzen hasi nitzanean, gu hiruak eta kaja de ritmos-a: asike lau. Ondoren Eneritzekin ateratzen hasi nitzan,

Eneritz: Ta ni ordun hasi nitzan Ebak ezin zuenean, haren partez gitarra jotzen, ta geroago, bajua jotzen hasi nitzan. Handik urte betera edo, Julen hasi zen bateriarekin. Ebak gitarra jotzez utzi zuenean, Ibai hasi zen bere partez. Orain bost gaude: Dani, Ainara, Julen, Ibai ta ni.

• Jotzen dituzuen instrumentuak, non ikasi dittuzue? Goizutan?

Eneritz: Nik gitarra Goizutan, Iñigo-kin, ta bajua nere aldetik.

Dani: Ibai ta Julenek ere Goizutan, ta nik trikitixa Hernanin, Tapiakin. Ainarak pandereta Billabonan.

• Zenbat urtez ibili zarete ikasten? Oraindik jarraitzen al duzue?

E: Nik gitarraz aparte beste instrumentu batzuk jotzen ttut, trikitixa, pandereta, gitarra, bajua, bateria pixkot,...

D: Eneritzen promozioa aparteko oja baten,e? (parrez lehertu ga denak)

E: Aber serio, zein zen galdera?

• Aber zenbat urtez aittu zaten ikasten,

E: Gitarra zazpi urtez ikasten-bueno ikasten, ez nun deuse itten-, ta bajua ikasi gabe.

D: ta bajua ikasi gabe hasi zen

E: Oraindik eztaikit bajua.

D: Ba nik, hamar bat urte ikasten,

• Ta oain irakasle modura, ez?

D: Irakasle modura ta oraindik ikasten segitzen dut.

E: Ta Julenek, bi-hiru urte bateria-kin, ta Ibaiek zazpi edo hola.

• Irakasle onak izan al ttizute?

E: Onak, miño guk fundamentuik ez giñunez.

• Musika gehiago ikasteko asmo-tan, okurritu al ttizute, kontserbatorion baten sartzera?

E: Nik instrumnetuk ez, miño kantatu. Kantatzeko ikastarok

D: Ez, ez. Hori jende...

• Zein da zuen oraingo ametsa?

E: Talde bezala, nere ametsa, talde baten kantatzera, miño kantatu hutsa.

D: Nerea, nik intako musikatik bizi-tzera

(Artean, kolokaneko bajista ere azaldu zaigu, saludotxo bat egitera —edo kotilleatzera?—)

• Entrebistakin jarraituz, zuen ametsetako bat bete al zen taldea osatu zenean?

D: Nerea bai, bueno nere ametseta-ko bat.

E: Bai, ez oso-osorik, baina bai.

• Kantak zeinek asmatzen ditu? Edo nola konposatzen dituzue?

D: Ez dugu egiten.

• Ta nola dihoa orduan?

E: Ba kanta herrikoiak, edo beste taldeenak, Etzakitenak esaterako, gehiena...

• Abesti horiek nola ateratzen dituzue?

E: Zinta jarri eta bakoitzak bere zatia ateratzen du. Baina Danik, lehen, egiten zituen kantak,

D: Lehen bai, baina orain, gogorren hasi gara eta,...

• Ah!, orain beste talde batean ere jotzen duzu ezta?

D: Bai, 'Kolokan' en.

• Ta diskorik ateratzea pentsatu sekula?

E: Danik bai.

D: Kantak ateratzen ibili nitzan garai hartan, bai.

• Entsaioak, zenbat?

D: Ezin dira kontatu,

E: Ez, zeren ezta aleik.

• Ta kontzeruri dagokienez, urte osoan ala udan bakarrik ematen dituzue?

E: Emango genituzke urte guzin, baina udan bakarrik du aukera.

D: Karnabaltan tarteka. Negu guzin bost emango ditugu, gehienez.

E: Udan dextente. Kasik astebururo.

• Non ematen dituzue gehio? Zein lurraldetan?

D: Bizkaia ta Nafarroa. Bizkaian gehiago.

• Zergatik?

E: Ba gure agentzia, Bizkaiakoa delako.

«Kanta herrikoiak, edo beste taldeenak, Etzakitenak esaterako, gehiena,...
Zinta jarri eta bakoitzak bere zatia ateratzen du»

«Ibai, gitarra dantzan hasten zaigu, fandango-arin arinatan, behera jaitsita... neska talde bat baldin badago, fijo, haiengana joango dela»



D: Gipuzkoa eta Bizkaiako agenzia dira, baina bitan banatuta, ta izen diferentekin, ta gehio konsegitzen digu Bizkaiakoak. Agian Gipuzkun aukera gehio egongo delako baitare.

• **Harrera ona izaten al duzue?**

D: Denetik. Batzuetan bokadiluk erosi ta pagatu beharra izaten dugu, ta beste batzutan ahora sartzen dizkigute.

E: Orokorrean uste dut ez dela harrera oso onik izaten. Askotan joaten gara leku batera jotzera ta ez dugu harapatzen ez non jo behar den, ez zaigu inor bila etortzen. Harrera ona, adibidez, Leitza

• **Orduan harrera onagatik edo herri aipagarri bat izango al litzake Leitza?**

E: Kontutan hartuta karnabaletan eta negua zela, jendea dantzan asko ibili zen ta krixton giroa zen.

D: Herriz aparte, Leitza hobena.

• **Ta bestela?**

E: Bodatan oso ongi, jende guzik

dantzatzen du. Bodak bizio bat dira. Gutxixio jotzen duzu ta igualtsu irabazten duzu.

• **Ta herrin bertan?**

D: Herrin bertan, gaztetxan ez bada, beste herri baten bezala.

E: Bueno bai; fiestatan umen egunean krixton giroa egoten da; karnabaltan inor ez. Hotzangatik baita ere.

• **Ta kontatzeko anekdotaren bat edo?**

D: Gitarra, Ibai, dantzan hasten zaigula fandango-arin arinatan, behera jaitsita, harapatzen ditun neska-kin.

E: Gitarraikan ez du jotzen fandango-arin arinatan, ta uzten du gitarra, tabladutik jaisten da ta

D: gitarra uzten du, edo ziarro bat erretzen du bazterrean, edo behera jaisten da, ta neska talde bat baldin badago, fijo, haiengana joango dela.

E: kontutan hartuta arrunt ongi dantzatzen dula, enteintzekoa da

D: Mozorrotan ikasi baitu.

• **Bueno, ta gu ere entetu ga inber-**

tsio bat egin berria duzuela, ekipoa, furgoneta, ...ta zer duzue, etekin asko ateratzeko asmotan edo?

D: Asmotan erosi genun

E: Eztkit, udan bakarria ibiltzen baldin baga...; negu guzin furgoneta geldirik dago, eta ekipoa ere hortxe dago, baina nik uste dut hala ere rentablea dela, bestela trasteak kargatzeko kotxe bat baino gehiago eraman behar genituelako. Gainera furgoneta ez du deskargatzen.

D: lan pila bat kentzen du. Bueno ta orain nahi genuke zuen kanta bat entzun,

E: Aber, zein kantatuko du, (farrez ari dira)

Dani ta Eneritz: «Hainbeste kome-ri, normala al da...»

E: Miño hau ezta gure taldeko kanta, ja, ja, ja, Hori gu txoratuta ibiltzen giñaneko kanta da, ...

• **Bueno, ba, eskerrik asko denagatik ta suerte on taldearekin,**

D: Bai zuei, gure promozioangatik.

Ba beste bat arte Xapó!

Goizueta gaixoa, nora zoaz?

Goizuetak oraingoa baino garai hobeak bizi izan dituela gauza jakina da guztientzat. Askotan arrunt ariketa sanoa izaten da atzera begiratzea, eta idazki honen helburua ez da nostalgian blai egitea, arazoaz jabetu eta konpontzen hastea baizik, inolako konponbiderik balego behintzat.

Arazorik larriena biztanlegoaren jeitsiera ikaragarria da, Hego Euskal Herriko handienetakoa portzentaie-tan. Orain dela 40 urte –1960an– 1350 lagun bizi ziren herrian eta gaur egun ez gara 900era ailegatzen. Alde egiten dutenak gazteak direnez, herri-tarren adinaren batz bestekoa asko igo da, eta iazko Nafar Gobernuaren datuen arabera Goizueta bost lehe-nengoan artean dago. Honetan ere punta-puntan gaude beraz.

Herriek zerbitzurik ez eskaintzea izaten da askotan populazio jeitsiera-ren arrazoiak, baina hemen oinarrizko-ak diren guztiak eduki arren –esko-lak, aurrezki kutxa, osasun zentroa, botika, tabernak, dendak...– jendea joan egiten da. Datu zehatzik ez bal-din badaukagu ere, bikotean bizitze-ko erabakia hartu duten herriko gaz-teetatik hamarretik bederatzi beste lekuren batean instalatu direla baie-ztatu liteke, ia guztiak Gipuzkoan. Gehiegikeria izanen da agian, baina lehengoan batek esaten zuen, 30-40 urte inguruko herritar gehiago bizi dela Hernanin Goizuetan bertan baino. Ikaragarria! Eta



«Goizuetak, bizirik irauteko, jendea behar du. Jendeak, Goizuetan gelditzeko, herri bizia behar du»

txarrena gazteagoek ere bide bera da-ramatela.

Honen ondorioak dagoeneko na-barmenak dira. Haur eta gazteen ko-purua ikaragarri jeitsi da, eta honek, denborarekin aipatutako zerbitzu ba-tzuen desagertzea ekar lezake, esko-lak esate baterako. Hau izanen litza-teke hiltzorian dagoen gaixoarentzat azken labankada. Eskolarik ez balego zein gaztek antolatuko luke herrian bere bizitza? Aipatutako honetaz gain esan behar da, arraindegia urtea bu-katzearekin batera itxi zituela betira-ko bere ateak.

Hau irakurritakoan hemen etxebi-zitzak merke daudela pentsatuko lu-

ke edozeinek. Ba ez, laurogei etxetik goitti hutsak baldin badaude ere, ia bat bakarrik ere ez dago salgai. Etxe-ak eraikitzeak ilusioz dauden gazteak ere badaude, baina inork ez du lur mutur bat ere saltzen. Honek esan nahi du, Goizuetan bizi nahi dutenak ere kanpora joaten direla azkenean, eta hau bai benetan ikaragarria dela.

Nik ez dakit gure herriaren gaitz honek sendagairik baduen ala ez, bai-na zezenari adarretatik heltzeko ga-raia ailegatu dela uste dut.

Goizueta bezalako herri bat hiltzea ikaragarritzko pena izanen litzateke, eta ez baldin badira berehala neurri zorrotzak hartzen heriotz horren lekuko izanen gara guztiok, ur-te gutxi barru gertatuko bai-ta hori.




«Eskolan gero eta haur gutxiago. Herriak eskola behar du, baina eskolak ere herria behar du»

goizueta ezagutuz

Ongi ezagutzen al duzu zure herria? Baietz? Frogatu nahi al duzu? Aldizkari honetan horretarako aukera emanen dizugu. Aurrerago test bat aurkituko duzu, zure ezagutza hori frogatzeko. Baina hori baino lehen ariketatxo bat ere prestatu dizugu.


Mapa honen kanpoko aldean 12 zenbaki ikusiko dituzu, Goizuetarekin muga egiten duten 12 herriak seinalatzen dituztenak. Zenbaki bakoitza zer herriri dagokion asmatu beharko duzu.

Maparen barruan dauden zenbakiak, berriz, Goizuetako lurretan dauden 9 toki seinalatzen dituzte. Toki horiek zein diren asmatu beharko duzu. 9 toki horiek, ordenik gabe emanak, hauek dira: Mandoegi, Elama, Goizueta, Alkaso Alde, Al-duntzinmendi, Berdabio, Loitzate, Artikutza eta Bianditz. Asmatu behar duzuna da zenbaki bakoitzari zein toki dagokion.




MANDOEGI	15	BERASTEGI	8	LESAHA	1
GOIZUETA	16	ELDUALEN	9	ARRANTZA	2
BIANDITZ	17	ARRANO	10	ZUBIETA	3
BERDABIO	18	ORRETA	11	LABAEN	4
ELAMA	19	OIARTZUN	12	ERATSUN	5
ALDUNTZINMENDI	20	ARTIKUTZA	13	EZKURRA	6
ALKASO ALDE	21	LOITZATE	14	LEITZA	7

adimenak dantzan



Bi pertsona hauek eskailera-maila ezberdinetan eserita daude. Baina arretaz begira ezazu. Horrelako eskailerarik egin al liteke?

Arretaz begira itzazu bi lerro hauek. Zein da, zure ustez, luzeena? Eskuinekoak luzeagoa dirudi, ezta? Bada, biak berdin-berdinak dira.




Seguru asko agure zahar bizardun baten irudia ikusten duzu. Ikusmena erlaxatuz gero, mahatsondo-hostoz inguratuta elkar besarkatzen ari den bikotea ere badela ohartuko zara.

Zer ikusten duzu marrazki honetan? Agian indio baten aurpegia, albotik ikusita. Baina agian eskimal bat ikusiko duzu: zuri bizkar emanda, gorputz osokoa.



Irudi hau arretaz begiratu. Irudi hau lehenda-biziko aldiz begiratzean gutako gehienok eskailera-mailen gaineko alde ikusten dugu. Baina ez da eskailera hau ikusteko modu bakarra. Alderantziz dagoen eskailera bat ere ikus daiteke, eta kasu horretan eskailera-mailen barruko edo azpiko alde ikusten dugu.


Begirada mantenduz gero, gainera, eta nahi gabe, ikusten duzuna noiznahi aldatuz joanen da: goitik ikusitako eskaileratik azpitik ikusitako eskailerara, eta alderantziz.



adimenak dantzan




Irudi honetan printzesa gazte bat ikusiko duzu. Alderantziz jarritz gero, ordea... Zaharxeagoa den emakumea ikusiko duzu.



Begira ezazu marrazki hau eta eutsi begiradari. Espazio txuri horietan, ez al dituzu ñir-ñir egiten duten puntu beltzak ikusten?

Zein da hiruen artean luzeena? Neurtu itzazu eta jakinen duzu.



Ardo botila

Botila bete ardok 10 euro balio du. Barruan duen ardoak, botilak berak baino 9 euro gehiago balio du. Zenbat balio du ardoak eta zenbat botilak?

Txoria eta ura

Txori bat hondar eta harri-basamortuan barrena hegan doa, ur bila. Halako batean kristalezko botila bat aurkitu du eta hondoa ur pixka bat ere badu. Baina ezin du edan, ez baita bere mokoaz barruraino iristen.

Nola lortuko du txori gaixoak ura edatea, botila irauli gabe eta ura hondarretan eta harrietan isurtzera arriskatu gabe?

Nor da gezurtia?

Irla batean bi pertsona mota bizi dira: Xak, beti egia esaten dutenak alegia, eta Yak, beti gezurra esaten dutenak. Irlako hiru biztanle hizketan ari dira: Jon, Saioa eta Joxe Martin. Jonek esan du:

-Gu hiruak Yak gara.

Baina Saioak, Jonen esana zuzenduz, hau dio:

-Gutako bat Xa da.

Zer taldekoak dira Jon, Saioa eta Joxe Martin?

• Soluzioak:

Nor da gezurtia? Jon ezin da Xa izan. Xa baltz, bera esandakoa gezurra izanzen litzateke, eta Xek egia esaten dute beti. Bera, Y da. Ya denez, gezurra esan du, eta denak ezin dira Y izan, gutxienez batek Y izan behar du. Baina Saioa eta Joxe Martin ezin dira biek X izan, bestela Saioak esandakoa gezurra litzateke, eta X izanda beti egia esan behar du. Bera, soilik X bat dugu, Saioa edo Joxe Martin. X bat dagoela badakigunez eta, bera, Saioak egia esan duenez, bera da X eta beste batak Y.

Txoria eta ura: botila harriz beteiko du ura goinaldiera igo arte

Ardo botila: botilak 0.5 eta ardok 9.5

Bertsolariak eta bertsozaleak «egiten»

Gaur egun Joxema Leitzak zuzentzen duen bertso eskolak hamabost urte inguru baditu dagoeneko. Garai hartan perretxikuak bezala sortzen ari ziren horrelako eskolak Euskal Herri osoan barrena, eta hemen ere, herriko bizpahiru bertsozaleri esker, dozena bat ikasle elkartzea lortu zen. Baita ordurako lan honetan esperientzia dextentea zuen irakaslea kontratatu ere, Andoaingo Jose Manuel Oiartzabal hain zuzen.

Eskola martxan paratu zutenen ilusio eta helburuetako bat plazetan ibiltzeko moduko bertsolariak «egitea» zela ukaezina da, baina seguru aski ez ziren horregatik bakar lanean hasi, hori bezain garrantzitsua baita bertsozaleak «egitea». Egia esan aurrena aipatutako hori neurri batean bete da, eskolako lehenengo «promojiokoa» den Xabier Legarreta aranoarra hor baitabil plazaz plaza azkeneko zazpi-zortzi urte hauetan.

Eskolarteko lehiaketetan ere bat-batean edo idatzian asko dira Goizue-ta eta Aranoko neska-mutikoez lortutako sariak. Legarretaren taldekoa zen Jon Eskudero Nafarroako txapela eskuratu zuen bere garaian eta urte batzuk geroago Hodei Lujanbiok



sari berdina ekarri zuen etxera. Dena den, beste bertso eskola batzuen emaitzak ikusita, Bortzirietako eskolarenak esate baterako, herriko bertsozaleek inbidia sano bat sentitzen dutela argi dago, hauek ere nahiko bailukete herritarren bat plazetan punta-puntan ibiltzeko gai izatea.

Hasieran aipatu den bezala, Joxema Leitzak hartu zuen duela urte batzuk Oiartzabalek bere garaian Xa-

bier Legarreta berari pasatako lekuko. Orain dozena bat ikasle ditu Leitzak, baina kontuan eduki behar da, hauek, nolabait esateko, ikasleen «elitea» direla, «Xalto» eskola publikoko neska-mutiko guztiek ematen baitute bertsolaritza eskolan bertan. Gehiago ikasi nahi dutenak, edo Joxemak berak gaitasun bereziren bat dutela igartzen dienak sartzen dira bertso eskolan.

Eskolako lehenengo «promojiokoa» den Xabier Legarreta aranoarra hor dabil plazaz plaza azkeneko zazpi-zortzi urte hauetan

herri ohiturak

Inoteak

Guztiok dakigu Goi-zuetan, gure herrian, aspaldian nik ospatzen direla ihaute-riak, hau da, Inoteak. Garizuma iritsi baino bi aste lehenago. Herri gehienetan bezala, ohitura handia izaten zen gauean mozorrotu eta ilargiaren argitasuna eta musika tradizionalarekin batera, kalean, sutondoan, dantzatzeko; modu horretan ospatzen baitzituzten festak. Aldiz, txondorretan ikatza egiten zuten ikazkinek, mendialdetik ohitura berri bat ekarri zuten, geroa herritarrengan atxikimendu handia izango zuena, ohitura berri bat sortuz.

Historiak dioenez, Urkulu mendian lanean ari ziren ikazkin batzuei aurpegiak belztu, zahagia bete ardo bizkarrean hartu eta eguna dantzan ospatzeko herrira jeistea gogotu omen zitzairen. Zahagi dantza dantzatu zuten, herritarrengan harrera ona lortu zuen eta jarraitzaile asko sartu zitzaizkien tartean. Hori zela eta hurrengo urteetan herrian ezezik baserrietarantz ere igotzen hasi ziren.

Garai haietan, etxez-etxe eskean ibiltzea normala zen inguruko mendialdeotan, beraz bertako jendartearen hartu-emanen ezaugarria ez zegoen gaizki ikusia. Orduan, batzuk festarako gogoa eta dantzak eskaini eta besteek jateko txerriak eta nahiko ardoa ematen zieten diruaren lekuan. Gainera, garizumako barauen aurretik nahikoa txerri izaten baitzen baserrietan. Hurrengo egunean, asteartean, herriko kaleetan, berriro ator eta



Urkulutik betti, dantzara

galtza zuriak, zapela, gerriko eta lepoko gorriak jantzi eta zahagi dantza dantzatzen zuten herriko neska guztiei aurpegi osoa zikinduz.

Ohitura hau gaur egundaino iritsi zaigu zorionez, inote egunean herritarren artean emozio berezi eta giro herrikoi bat sortaraziz. Baina errealitateari sakonki begiratu bagenio, ikusiko genuke nola ohitura hau pixkanaka ahultzen doan. Guztiok dakigu baserriar gehienak nazkatuak daudela inoteetako ohitura hauekin, eta gaitz hau herritar guztion artean pixkanaka inkonzienteki zabaltzen ari zaigula. Ikusten dugun bezala egun honetan baserri gehienak itxi egiten dira, edo barruan sartzean etxeko andreen edo gizonen begirada zuzenak jasotzen dira. Honekin ez dut esan

nahi, inondik ere, horretarako arrazoirik ez dutenik. Zeren eta ohiturak aldrebesten ari garenak, gu geu, partaideok gara.

Ziurrenik orain arte guztioi belarrietaraino heldu izanen zaigu, hainbat ekintza txar egiten direla egun honetan baserrietan, helburu zikinez gainera, non ekintza hauen erruz giro nahasi honetaraino iritsi garen.

Nik uste dut ondorio hauek berandu izan baino lehen zuzentzen ahalegindu beharko genukeela. Inoteak garaira egokitu, herritarrengan giro egoki eta neutro bat sortuz, eta ekintza, hau da, ohitura txarrak bihurtzen ari diren hauek baztertu, denon artean gure inoteen ezaugarri nagusi diren mozorro-festek giro emozional eta herrikoian sustraitzen saiatu.

Nik uste dut kezka hauek beharrezko ditugula inoteak giro egoki batean ospatzeko. Herritar guztiok daukagu eskubidea, eroritako harria jaso eta gure apunteririk onenean, tokan bezalaxe, sei puntuak lortzeko. Horrela partaide guztiok, bai neskek bai mutilak ere, animo on eta garbian herrian festa egokiak ospatzeko. Hitzak hitz dira, baina egoera aldatzeko, hau da, kontzientzia ezartzeko balioko duela uste dut, nire kezka eta denon kezka hauekin.

Gu giro honetan eta baserriarrek aterik irekitzen ez badute, agurtzen hastea besterik ez zaigu geratzen konponbiderik izango ez duten mozorro-festa hauei.



EZETZ ASMATU

Ezagutzen al dituzu? Begi zorrotza al da zurea? Lasai, asmatu ez baduzu, ondokoari galdetu eta berak esanen dizu. Izan ere, urteak azkar joaten zaizkigun arren, ilea erori edo gerrialdea handitzen zaigun arren, badaude betidanik eta betiko ditugun seinaleak, markak edo ikurrak: begirada, sudurra, gorputzaren jarra... Ikur horiek bila itzazu eta aisa asmatuko duzu argazkikoak nor diren, Goizuetan herri txikia baita eta denok elkar ezagutzen baitugu.

PERTSONAIA EZKUTUA

Hau zailxeagoa da, akaso. Lehendabiziko begi kolpean asmatzen da horrelakoetan, bestela zailagoa da eta. Ez duzula asmatzen? Lasai, Goizuetan 900 lagun inguru besterik ez gara bizi eta horietako bat da. Banan-banan goizuetar guztien aurpegia errepasatzen hasi eta, halako batean, duda izpirik gabe, nor den ikusiko duzu. Ah, orduak pasa eta pasa, eta hala ere asmatzen ez baduzu, aldizkaria egin dugunoi galdetu eta esanen dizugu, hain gaiztoak ez gara eta.



Goi-zubi-eta, Goizueta alegia?

Gaur egun tokiak identifikatzeko gero eta gehiago zenbakiak eta kodeak erabiltzen ditugu. «Ez dakit zer kilometroan, badakit zer partzelan...». Baina garai batean toki bakoitzak bere izena zuen, eta gehienetan oso ongi eta zentzu handiz jarria. Beharrezkoa baitzen. Orduko jendeak oso lotura estua zuen lurrarekin, eta eguneroko bizimoduak eta lurrarekiko erlazio estu horrek agintzen zion toki guztiei izena jartzea.

Artikulu honetan, hain zuzen, horren inguruan hitz egingen dugu: toki izenen inguruan. Zehazkiago, Goizuetako toki-izenen inguruan, edo urte eta mendeetan zehar goizuetarrek bertako tokiei emandako izenen inguruan.

Gure informazio iturri nagusia liburu bat izan da: «Nafarroako toponimia eta mapagintza. Arano-Goizuet», duela urte batzuk argitaratua eta, beraz, denon eskuragarri dagoena. Datu zehatzak hortik atera ditugu, eta informazio hori beste modu batean antolatu ondoren, horren gaineko hausnarketatxo bat egiten ahalegindu gara.

Artikulu honen bukaeran ariketatxo bat proposatuko dizuegu. Askotan esan da euskaldunok joera handia dugula hitzen edo izenen jatorria bilatu eta asmatzeko (etimologia deitzen zaio zientzia horri), eta gutako bakoitzak etimologista bat duela barruan. Ez dakigu hori horrela den, baina ariketatxo horren bitartez Goizuetako zenbait toki-izenen jatorria asmatzea proposatuko dizuegu. Aukeratu ditugu



gun adibideak errazak dira oso, gehienetan behintzat. Aisa asmatuko dituzue. Gainera, bukaeran, soluzioak ere emanen ditugu.

Sarrerakoa bukatuta, bada, goazen harira eta has gaitezen Goizuetako toki-izenen gainean zer edo zer esaten.

Izenen itxuraren aldaketa

Gauza jakina da denborarekin gauzak asko aldatzen direla. Baita izenak ere. Adibide bat aipatzearren, Goizuetara bera hauta dezakegu. Dokumentu zaharretan **Goïçqueta**, **Goyçqueta** edo

Goizuuieta

aurkitu dezakegu (zenbaiten ustez goi + zubi + eta). Azken aipamen hau XII. mendekoa da. Goizuuieta horretatik gaurko Goizuetara, beraz, badago aldea. Eta «Goizuetara» idazten dugun arren, «Goizuta» ere esaten da.

Baina ez da adibide bakarra. Ezberdintasun gehiago aurkituko dugu, pixka bat bilatuz gero. Alde batetik, dokumentu zaharren eta gaur egungo izenen arteko aldea dugu. Esaterako:

• **1821eko dokumentuan:** Vicarioremborda _ gaur egun: Bikainborda.

•**1676ko dokumentuan:**

Gorosteguieta _ **gaur egun:** Gorostieta.

•**1801eko dokumentuan:** Egurcegui _ **gaur egun:** Igurtzi.

Bestalde, herritarrek erabiltzen duten forma eta ofizialki onartu dena ez da beti berdina izaten. Toki-izen ofizialak, Nafarroako toponimia osoa aztertu ondoren, Nafarroako Gobernuak onartu zituen 1993an, Goizuetakoa barne.

•**Bertakoen esateko modua:** Biri-bilta _ **Izen ofiziala:** Biribileta.

•**Bertakoen esateko modua:** Iurtziko malda _ **Izen ofiziala:** Igurtziko malda.


•**Bertakoen esateko modua:** Urkitako eia _ **Izen ofiziala:** Urkietako Hegia.

Ikusten da, beraz, izenak emateko garaian dena ez dela hain erraza. Historian zehar modu eta forma ezberdinak agertu zaizkigu eta gaur egun ere, izena idazteko garaian, ez dugu besterik gabe esaten den bezala idazten. Normala den bezala, gainera, idazteko moduaz iritzi ezberdinak egon litezke eta egon badaude.

Izenen zentzua, esanahia

Sarreran esan dugun moduan, garai batean zentzu handiz jartzen zitzairen izena tokiei. Gaur egun izen egokia jartzeko sena hori galduxe badago ere, lehengoek oso ongi asmatu zutela ematen du. Normalean, ingurua deskribatzen zuen izena aukeratzen zuten. Bestela, inguru edo toki horrekin lotura zuen pertsona, gertakizuna, lanbidea... jasotzen zuten jarritako izenean. Ikus ditzagun zenbait adibide:

Errekabeltz, Errekailluna, Erreka-leorra: erreka-izenak dira, baina izen



hutsa izan gabe, erreka horren gaineko nolabaiteko informazioa ere ematen digute. Ziur aski, ur iluneko errekek zirela, edo ur gutxikoak, edo...

Burningo Erreka: izenagatik bada-kigu inguru horretan burdina izanen zela. Izan ere, ezaguna da inguru honetan burdin eta burdinola ugari egon zela.

Deskantsuko bizkarra: aziendak atsedean hartzeko tokiak izendatzeko antzeko izenak erabili dira toki askotan: Aiseleku (Olaztin), Aisatoki (Dorraun), Deskantsarri (Uhartaraki-len). Goizuetako hau ere antzekoa izanen litzateke. Hau da, izenak azaltzen digu toki horretan zer egiten zen edo zertarako erabiltzen zen.

Erdiko Ikatzulo: erdiko + ikatz + zulo. Izen honek erakusten digu bertan ikatzarekin lan egiten zela. Askotan, ikatzaren inguruko jarduna desagertu bada ere, izenok betirako lekukotasuna uzten digute.

Telleria: Telleria, teilak eta adreiluak egiten ziren tokiaren izena da. Oso izen arrunta da Euskal Herrian, eta izen hori duen tokian gaur egun

teilarik egiten ez bada ere, garai batean egiten zenaren berri ematen digu.

Irumugeta:

(H)iru + muga + eta. Hiru mugak bat egiten duten tokia da. Hain zuzen ere, Berastegik, Leitzak eta Goizuetak muga egiten duten tokia-
ren izena da.

Sorginzuloko erreka: (Sorgintxuloko erreka). Sorgin + zulo.

Izen honek sorgin kontuak ekartzen dizkigu gogora. Goizuetan ere izan dira horrelako kontuak, beraz.

Irakurketa edo interpretazio ezberdinak

Izen batzuen esanahia oso argia den bezala («Iturritzarra», esaterako), beste batzuen kasuan ez da hain argia eta aukera ezberdinak ditugu. Adibidez:

•**Arranbide:** Arrano + bide. Hau da, arranoen bidea? Edo Arrain + bide. Hau da, arrainen bidea?

•**Tantagorri:** Tanta + gorri ote da?. «Gorri»ren kasua argia da, baina «tanta» osagaia? Zer da?.

Garbi dago, hortaz, askotan toki-izena garbi-garbia den bezalaxe beste askotan iluna dela eta ezin dela ziur esan zein den bere esanahia.

Izen propioetan oinarritutako toki-izenak

Lehen aipatu dugu eta horrelaxe da. Askotan, toki bati izena jartzeko garaian, eta batez ere eraikinen bat baldin bada (borda, baserria...), izen propioak ere erabili izan dira.

•**Jaxintaren gaztaneria (Jaxintan gaztaneria).**

•**Joakiñen borda.**

Ariketa

Hasieran esan bezala, ariketatxo bat prestatu dugu, izenen jatorria asmatzeko duzun gaitasuna frogatzeko. Erraza da. Izena nola osatu edo sortu den asmatu besterik ez da egin behar. Adibidez:

Pagadiluze _ «pagadi» + «luze»

Aritzaltueta _ «aritz» + «altu» + «eta»

Erraza da, ezta? Proba ezazu, bada, hurrengo izenekin, eta ondoren soluzioa zein den begiratu. Gogora ezazu den-denak Goizuetako toki-izenak direla.

1. Aizpuru (aixpuru).....
2. Altzate
3. Ariztiederra (ariztiarra).....
4. Arlepo
5. Arnabarreta (arrinabarreta).....
6. Astabideta
7. Beileku
8. Egitxorrotxa
9. Gaztainxoko
10. Itola
11. Iturraundi (iturraundi).....
12. Loiarte
13. Otezurieta lepoa (otezuritako lepoa).....
14. Satorlepo
15. Ugalde
16. Zokoepe

- 16.- Zokoepe: zoko + epe
- 15.- Ugalde: ur + alde
- 14.- Satorlepo: sator + lepo
- 13.- Otezurieta lepoa: ote + zuri + eta
- 12.- Loiarte: lo(h)i + arte
- 11.- Iturraundi: iturri + aundi
- 10.- Itola: idi + ola
- 9.- Gaztainxoko: gaztain + zoko
- 8.- Egitxorrotxa: (h)egi + zorrotza
- 7.- Beileku: be(h)i + leku
- 6.- Astabideta: asto + bide + eta
- 5.- Arnabarreta: (h)arri + nabar + eta
- 4.- Arlepo: (h)arri + lepo
- 3.- Ariztiederra: arizti + ederra
- 2.- Altzate: altza + ate
- 1.- Aizpuru: (h)aitz + buru

Soluzioak:

- **Joxeinfantaren gurutzea** (Joxe infantan gurutzea).
- **Juanan zokoa** (Juanantxokoa).
- **Juan Tomasen basoa.**
- **Julianen borda.**
- **Juxtoren borda.**

Bitxikeriak

Goizuetan toki-izen asko dago, zalan-tzarik gabe, era askotakoak gainera. Horietako batzuk bitxiak dira. Esate baterako, Goizuetako toki-izen euskaldunen artean deigarri gertatzen den **Montefrio** izen erdalduna. Baina ez da bitxikeria edo izen deigarri bakarra:

- **Haizerik ez duen harria** (aizeik ez dun arria).
- **Otzbero.**
- **Urbedeinkatuntzia.**

Bestalde, bitxikeria gisa, aipamen bat: sarreran aipatu dugun liburuan Goizuetako 1445 toki-izen agertzen dira (Artikutzakoez gain). 1445 horietatik 293 «a» letraz hasten dira. Le-

tra hori da, «a» letra hain zuzen, toki-izenen hasieran alde handiz gehien erabiltzen dena. Bigarrena, zerrenda horretan, «e» letra da (130 izen), hirugarrena «b» (128) eta laugarrena «i» «121». Toki-izenen hasieran jartzeko gutxien erabiltzen direnak «j» (11), «x» (11), «f» (8) eta «n» (6) dira.

Izen bera herri ezberdinetan

Oso gauza arrunta da izen bera edo oso antzekoa herri ezberdinetan aurkitzea. Urrutira joan gabe, Goizuetako zenbait izen gure ondoko herrietan ere, Aranon, Leitzan edo Areson, aurki ditzakegu. Esate baterako:

- **Telleria:** Leitzan, Goizuetan, Arano eta Areson.
- **Egibeltza:** Arano, Goizuetan eta Leitzan.

- **Egiaundi eta Egiluze:** Areso, Leitzan eta Goizuetan, azken honetan **Egiluxe**.
- **Mendibil:** Leitzan eta Goizuetan.
- **Aritzaundi:** Leitzan eta Goizuetan.
- **Irumugarrieta:** Leitzan eta Areson. Goizuetan: **Irumugeta**.



Goizueta

ezagutzen al duzu?

1.- Zer altueran dago Goizueta?

- a) 155 metro
- b) 283 metro
- c) 76 metro
- d) 121 metro

2.- Zein da Goizuetako mendirik altuena?

- a) Beltzuntzako harria
- b) Abadegurutx
- c) Mandoegi
- d) Loitzate

3.- Baserri hauetatik zein ez da Goizuetakoa?

- a) Domiñazpi
- b) Portolo
- c) Ezkarti
- d) Gorritzun

4.- Zein da Goizuetako eskolaren izena?

- a) Goizuetako eskola
- b) Andres Narbarte «Xalto»
- c) Nikolas iribarren «Xardea»
- d) Xapo-ttiki

5.- Zenbat biztanle zeuzkan Goizuetak 1999ko erroldaren arabera?

- a) 1211
- b) 1001
- c) 906
- d) 992

6.- Zenbateko azalera du Goizuetak?

- a) 90.6 km²
- b) 82.6 km²
- c) 65.6 km²
- d) 47.6 km²

7.- Zenbat kilometro daude Goizuetatik iruñera?

- a) 64
- b) 108
- c) 76
- d) 53

8.- Zenbat baserri daude Goizuetan?

- a) 130 inguru
- b) 110 inguru
- c) 90 inguru
- d) 70 inguru

9.- Goizuetako Udala erakunde hauetako batean sartu zen 1993an. Zeinetan?

- a) EUDIMA (Euskal Herriko Udal Intsumisoen Mankomunitatea)
- b) FNMA (Federación Navarra de Municipios Abertzales)
- c) EUTE (Euskal Herriko Udalerrri Turistikoen Elkarte)
- d) UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea)

10.- Zein dira Goizuetako auzoak?

- a) Alkaso, Espide Aldea, Aitase-megi, Alkanzuriain, Tartaso
- b) Alkaso, Espide Aldea, Aitase-megi, Alkanzuriain, Erreka
- c) Tartaso, Espide Aldea, Eguzkialdea, Aitase-megi, Alkanzuriain
- d) Tartaso, Espide Aldea, Maietta, Aitase-megi, Alkanzuriain

11.- Etxe hauetako bat ez da Goizuetako. Zein?

- a) Zibola
- b) Kotxoa
- c) Martitxonea
- d) Beasainenea

12.- Zenbat udalerrirekin egiten du muga Goizuetak?

- a) 12
- b) 9
- c) 7
- d) 5

13.- Ibai edo erreka hauetako bat ez da Goizuetakoa. Zein?

- a) Urumea
- b) Alduntzin
- c) Elama
- d) Larrakaitz



14.- Zenbat biztanle zeuzkan Goizuetak 1960an?

- a) 1520
- b) 1350
- c) 1180
- d) 940

15.- Zenbat haur jaio ziren 2001 urtean Goizuetan?

- a) 8
- b) 12
- c) 16
- d) 20

16.- Nongoa zen, sortzez, Xardea?

- a) Goizuetarra
- b) Berastegiarrar
- c) Hernaniarrar
- d) Aresoarrar

17.- Noizkoa da Goizuetaren lehen aipamen historikoa?

- a) k.a.54.urtekoa
- b) 897 urtekoa
- c) 1181 urtekoa
- d) 1430 urtekoa

18.- Zenbat zinegotzik osatzen dute Goizuetako udalbatza?

- a) 11
- b) 9
- c) 7
- d) 5

19.- Noiz ospatzen dira Goizuetako bestak?

- a) Goizuetan ez dago bestarik
- b) Nahi dugunean ospatzen ditugu
- c) Abuztuan
- d) Beste inork ospatzen ez di-tuenean

20.- Noiz egin zen udaletxe berri-tuaren inaugurazioa

- a) 2002ko urtarrilaren 26an
- b) 2002ko otsailaren 2an
- c) 2002ko otsailaren 16an
- d) 2002ko otsailaren 23an

Erantzunak

- | | |
|-------|-------|
| 1. a | 11. d |
| 2. d | 12. a |
| 3. d | 13. d |
| 4. b | 14. b |
| 5. c | 15. a |
| 6. a | 16. c |
| 7. a | 17. c |
| 8. c | 18. c |
| 9. d | 19. c |
| 10. a | 20. d |

Asmatutako erantzunak:

- **15etik 20ra:** fenomeno, zure herria ongi ezagutzen duzu. Goizuetar titulua merezi duzu.
- **10etik 14era:** tira, herria ezagutzen gehixeago ahalegindu beharko zenuke, baina ez da hain emaitza txarra.
- **5etik 9ra:** aizu, zertan zabiltza? Non bizi zaren ba al dakizu?
- **0tik 4ra:** zuk ez duzu erremedio-rik. Telebista gutxixeago ikusi eta atera zaitez behingoz zure herria ezagutzera.





udal musika eskola

Urriaren 1ean 2001-2002 ikasturte musikolari hasiera eman zitzaion. Aurten ere 18 irakasle ari dira eskolan eta gogo handiz aritu ziren iraila osoan zehar lanean, urriaren lehenengo egun horretan gauza guztiak behar diren bezala izateko. 4 urtetik hasi eta adin guztietako ikas-

leak arituko dira aurten ere Aralar Udal Musika Eskolak eskaintzen dituen gaiekin gozatzen eta, nola ez, ikasten.

Urtetik urtera berrikuntzak ere izaten dira eta, laster, guztiontzat interesgarria izango den berri batekin etorriko zaizkigu musika eskolakoak.

Dena den, oraindik udalak zein eskolako beste erakundeak gaia mamitzen ari dira eta berri hori aurrerago zabalduko omen dute.

2001-2002 ikasturtean matrikulazio datuak onak izan dira, baina horretaz aparte kontzertuez ere hitz egin nahi dugu. Eskualde guztietan egiten dira, ikasleen gaitasuna erakusteko edota beraiek jendaurrean kontzertuak eman eta musika jotzera ohituz joateko. Azaroan Ultzamako eskualdeko kontzertua egin zen eta inguru guztietako jende multzoa bildu zen.

Martxoko kontzertua Lekunberrikoa da eta Betelukoa ere hil honen bukaeran izanen da. Apirilean Basaburukoa, maiatzean Leitzakoa eta ekainean Goizuetakoa izanen da, azkena.

Ikasturtea ekainean bukatuko da eta bitarte horretan disfruta dezazuela Aralar Musika Eskolaz.



Euskara

Goizuetako hizkuntza

Ezin esan horrela ez denik. Goizuetako hizkuntza euskara izan da, euskara da, eta euskara izanena da. Jakina, goizuetarrak hala nahi izanez gero. Goizuetak, zalantzarik gabe, «herri euskaldunaren» ospea irabazia du, bertan euskaraz bizi delako. Zenbatetan ikusi dugu Nafarroan Goizueta «eredu» gisa jarria: «han bai, han euskaraz bizi dira»; «euskararen paradisua da hura»...

Honezkerok, bakarren batek usaina hartu izan dio artikulua honi. Hainbeste lore banatuz hasten denak, zaplastekoa emanen du gero, «baina»ka hasiko da. Eta halaxe da, oraingoan behintzat.

Egia da Goizueta herri euskalduna dela, baina erdara ere ez da oso urruti gelditzen, ezta? Bestela, galdera hauei zintzo erantzuten saiatu:

- 1.- Prentsa zein hizkuntzetan irakurtzen da?
- 2.- Zenbat erdarazko telebista kate ikusten dira Goizuetan, eta zenbat euskarazko?
- 3.- Zenbat erdarazko irrati kate entzun daitezke Goizuetan, eta zenbat euskarazko?
- 4.- Herritik kanpora dauden zerbitzuak behar ditugunean, zenbatetan erabil dezakegu euskara? ospitaleak, osasungintzako espezialistak, zinea...
- 5.- Denok erabili behar izaten ditugun hainbat paperetan, zer hizkuntza erabiltzen dugu? aseguruak, abokatuen txostenak, bankuek edo kutxek ematen dizkiguten prestamo edo mai-leguak...
- 6.- Zenbat goizuetarrek ikasi ahal-ko dute unibertsitatean euskaraz?

7.- Zenbat aldizkari eros ditzakegu Goizuetan euskaraz eta zenbat erdaraz?

8.- ...

Beraz, egia da Goizueta euskaraz bizi den herria dela, baina horrek ere baditu bere mugak. Askotan erdara erabiltzera behartuta gaude, eta guk nahi gabe ere, ez dugu beste irtenbiderik, aurreko galderek erakusten duten moduan. Baina beti ez da horrela izaten, eta batzuetan geronek ere gehixeko egin genezake: euskara erabiltzeko ahalegin handixeagoa egin eta, aukera gutxi daudenean, horietxek erabili. Esate baterako, euskara hutsezko egunkaria badugu...

Bestalde, batzuetan, baita Goizuetan eta euskaldunen artean ere, erdara erabiltzen da. Hori, jakina, aukera librea da eta nahi duenak halaxe egin dezake. Baina interesgarria da gutxienez hori horrela gertatzen dela jakitea, eta Goizuetan bertan badaudela erdaraz egitea nahiago duten euskaldunak jakitea. Hori azaltzeko arrazoia zein den norberak jakinen du, eta batzuk garrantzi handia emanen dioten bezalaxe,

beste batzuentzat ez da hain garrantzitsua.

Gure ustez, nolana ere, euskalduna denarentzat eta, batez ere, euskaltzalea denarentzat, honen guztiaren inguruan hausnarketatxo bat egin edo pentsatzen jartzea garrantzitsua da. Euskarak osasun ona du Goizuetan, zalantzarik gabe, ia beste inon baino hobea. Baina Goizueta ere ez da unibertso zabaleko planeta galdu bat, bere inguruarekin eta beste lurralde batzuekin lotura duen herria baizik. Horregatik batez ere, ezin esan Goizuetan gure hizkuntzaren etorkizuna erabat ziurtatua dagoenik. Hemen ere, sendo eutsi nahi badiogu behintzat, kontziente izan eta neurriko ahalegina egin beharko dugu.



Gizon batek andrea haurdun dauka eta, klinikan zegoela, ea eduki ote duen edo kezkatuta, joan da korrika eta sartu da urgentzietara:

— Doktore jauna, doktore jauna, begira, nire andreak haurra izan du, eta ikusi nahi nuke.

— Nor zara?

— Xabier Martin.

— Bai, hirugarren solairuan.

Joan da hirugarren solairura, eta beste ate bat ireki, eta...

— Doktore jauna, doktore jauna, nire andreak haurra izan du eta ikusi nahi nuke.

— Begira, zure andrea oso ongi dago. Ez da inongo arazorik izan, baina semeak...

— Zer pasa da, zer pasa da semearekin?

— Ez, pasa ez da deus pasa. Oxigenoa jarri behar izan diongu.

— Diooossssss! Nik Xabier jarri nahi nion eta.

Gizon bat medikuarengana joan da, eta berebiziko dardarizoa eskuan, eta...

— Doktore jauna, begira, azken bolada honetan eskuan izugarritzko dardarizoa daukat, eta ez dakit zergatik ote den. Eta medikuak esan dio:

— Askok edaten al duzu?

— Askok nola edango dut? Erdia erori egiten zait eta!

Zer pasatzen da, seme?

— Eskolako andereñoak jo egin nauela.

— Andereñoak jo egin zaituela? Eta zergatik?

— Galdetu dit Brasil non dagoen. Eta ez nekien, eta jo egin nau.

Hori aditu bezain pronto, aitak Jesukristoren pasada, diii-daaa...

— Hurrengo batean hobeki gorde gauzak.

Elkartu da baserritar bat bere lagun batekin. Eta kamioi-kada simaurra baserritarrek, eta...

— Babilio, nora hainbesterainoko simaur pilarekin?

— Zera, marrubiei botatzera.

— Motel, motel, guk marrubiei nata botatzen zieagu!

Hileta batean, bada, lehen badakizue, gorpua zegoenean, etxean elkartzen ziren denak, eta kristoren pena, eta gorpua arean batek:

— Ez gara deus, ez gara deus.

Eta ondokoak:

— Gu ere ez, baina kafea ematen dute eta.

Aitona hilzorian omen zegoen, eta ohetik begiak ireki, eta hizketan hasi da:

— Maria, hemen al zaude?

— Bai, bai, hemen nago. Hemen nago.

— Andres, hemen al zaude?

— Bai, hementxe nago aitona, hementxe nago.

— Xabier, hemen al zaude?

— Bai, lasai aitona, hemen nago. Hemen gaude denak.

— Denak hemen al zaudete?

— Bai, bai, zure ondoan, hemen gaude denak.

— Eta denak hemen baldin bazaudete, zer egiten du pasi-lloko argiak piztuta?

San Ferminetan gertatutakoa omen da hau. Entzierroa hasteko oso gutxi falta zela. Herrena. Eta kalea gurutzatu nahi zuen. Bat-batean, gurutzatzen ari zela, etxaferoa, eta zezenak atera dira, eta hantxe larri herrena. Hanka kateatu zaio, eta jende guztia:

— E, herrena, herrena, herrena!

Eta herrenak:

— Aizue! utzizue zezenari aukeratzen, ezta?

Emakume bat medikuarengana joan da. Arazo txiki bat omen zuen. Ba omen zeukan titi bat ongi eta bestea ikaragarri eroria, luze-luzea.

— Begira, doktore jauna, hau gertatzen zait.


Erakutsi dizkio bi titiak, eta...

— Bueno, horrek badauka... konponbidea badauka. Egin behar duzuna hau da: luze-luze daukazun titi horretan, titi-punta gazta zaharrarekin igurtzi, eta ikusiko duzu nola gizona ez zaizun etortzen, ume txikia izango balitz bezala, titi-miazkatzera.

Medikuak esandakoa egin du, eta hortik bi hilabetera gero eta luzeagoa.


— Beno, zer pasatzen da? Ez al zenuen gazta zaharrarekin igurtzi?

— Bai, gazta zaharrarekin igurtzi nuen, eta orain, ordea, periodikoa eta ardo botilarekin etortzen zait.



letra zopa

Taula honetan Goizuetako 8 baserriren izenak sartu ditugu. Ea aurkitzen dituzun. Laguntzarik ez eskatu, erraz ikaragarria da-eta.



Baserrak:
Txanikene, Kapero,
Txarpa, Portolo, Olaso,
Belako, Untxari, Gorostin

E	Z	K	X	O	K	A	E	N
N	I	A	R	L	Z	E	N	I
E	A	P	R	A	X	T	R	T
K	M	E	O	S	F	A	T	S
I	N	R	I	O	X	O	X	O
N	P	O	R	T	O	L	O	R
A	O	G	N	I	J	U	N	O
X	U	U	E	D	I	K	E	G
T	B	B	B	E	L	A	K	O

ilargian zer berri?



Aries:

Hilabete hontan etzula suerteikan? Erremedioik onena signoz aldatzea.



Tauro:

Adar horik! Bijilatu mutila hokio.



Geminis:

Drogekin ere izan zaitez burujabe.



Kantzer:

Arrunt enamoratua zaude. Disimulatu hokixio.



Leo:

Beitu lurrera, igual hogeit duron bat lurrari pegatua do ta.



Virgo:

Zure esperon no. Azaldu 10:00etan Goiko itxen atzera.



Libra:

Inkomunikatuta sentitzen tzala? Erosi mobila.



Eskorpio:

Txupatxusakin duro asko gastatzen ttizula? Bihatza txupatu ta lixto.



Sagitario:

Erne sofari iratxita geldittu gabe! Gainera zure ipurdi horiek...



Kaprikornio:

Yantzi arropa, gaixotasunan bat hartzeko etzabiltza ta oso urruti.



Akuario:

Dirua behar tzula? In pelota.



Pistis:

Kontrolatu zure jenioa, pasatzen ai za ta.



ZURE TXANDA



josu

eskudero

Sexua edo droga?

**Drogarik hoberena sexua da
Rock-a edo bakalloa?**

Bakalloa

Ogia edo Bimbo?

Ogia

Oporretara joateko leku bat?

Zurekin edozein lekura

Idazteko papera edo erretzekoa?

**Normalean erretzekoa gehiago erabiltzen
dut**

**Zein hiru gauza eramango zenituzke uharte
batera?**

Emakume bat, tabakoa eta metxeroa

Kondoia edo pirula?

Kondoia

Larunbata edo astelehena?

**Larunbatean erotu eta astelehenean da-
mutu**

Azkena irakurri duzun liburua?

Amaren enkarguetako lista

lñoteetako mozerro bat?

Ben Laden-ena

**Zer iruditzen zaizkizu herriko mutilak/nes-
kak?**

**Kazula egostera jartzen dute, baina
arraultza eta txistorra botatzeko momen-
tuan askok tapa jartzen dute**

Zer aldatuko zenuke Goizuetan?

Jendearen begirada

Goizuetako gauzarik txarrena?

Karretera

Eta onena?

Lasaitasuna, besterik deus ez dago eta



amaia

tato

Sexua edo droga?

Juerga, parranda

Rock-a edo bakalloa?

Bakalloa

Ogia edo Bimbo?

Ogia

Oporretara joateko leku bat?

Salou

Idazteko papera edo erretzekoa?

Ez dut ez bata ez bestea erabiltzen

**Zein hiru gauza eramango zenituzke uharte
batera?**

Mobila, etxeko giltzak eta txaleko arrosa

Kondoia edo pirula?

Kondoia

Larunbata edo astelehena?

Larunbata

Azkena irakurri duzun liburua?

Bihar esango dizut

lñoteetako mozerro bat?

Printzesa

**Zer iruditzen zaizkizu herriko mutilak/nes-
kak?**

Ez dut hitzik azaltzeko

Zer aldatuko zenuke Goizuetan?

Aldatu deus ez. Jarri, asko

Goizuetako gauzarik txarrena?

Inkomunikazioa

Eta onena?

Askatasuna